



“BESARKADA SOLIDARIOA”-REN BIDEZ LAPURRETAK SAKANAN

Azken asteetan hiru kasu izan dira Irurtzun, Olazti eta Altsasun

Foruzaingoak “besarkada solidario edo maitagarri” deritzonaren lapurretetan bidez espezializatutako talde gaizkileak Sakanaldean daudela herritarrei ohartarazten die. Ekialdeko herrialdeetako emakumeak dira gehien bat, eta Euskadin bizi direnez Nafarrora sartzen dira mota honetako delituak gauzatzen. Azkenengo bost kasuak Irurtzun, Olazti, Altsasu, Iruñea eta Noainen gertatu dira.

Besarkada solidarioa lapurreta teknika bat da. Bere *modus operandi* adineko eta lagundu gabeko biktimak bati hurbiltzean datza, baliozko gauzak lepoan edo eskuetan daramatzana. Agurtzen saiatzen dira ezagutzen dutela itxuraz, edozein motatako informazioa eskatzera edota sexu mesedeak eskaintzeko. Elkarrizketaren bitartean, biktimen eskuetatik eta besoetatik heltzen dira lepoko edota eskumuturreko erlojuak edo beste edozein gauza baliotsu lapurtzeko.

Egileek gaitasun handia erakusten dute bitxiak edo erlojuak kentzeko. Biktimak, ezezagun baten hurbiltzarekin harrituta eta deseroso efusiboki sentitzearekin batera, ez dira konturatzen haien baliozko gauzak lapurtzen ari direla. Batzuetan, indarkeria erabiltzen dute bere lapurretak gauzatzeko. Delituak bide publikoetan eta adinekoek ibiltzen diren gunetan gertatzen dira, hala nola, osasun eta erlijio zentroetan, zaharren egoitzetan, baita ere jubilatuen elkarteetan hurbil. Beste batzuetan, biktimei jarraipena egiten diete, etxera sartzerakoan haiengana hurbiltzeko.

Azkenik, hona emen gomendio batzuk: hurbiltzen diren ezezaguneengan mesfidatu, batez ere efusiboak eta maitagarriak badira (beraz, kontaktu fisikoa ez utzi, distantzia mantendu). Balio ekonomiko handiko bitxi edo erlojuekin bakarrik ibiltzea ez da komeni, objektu horien itxi egoerak berrikusi eta haien argazkiak egin ta gorde, lapurtzen badira isuna aurkezterakoan argazkiaren ekarrera interesgarria baita.

Biktima edo lekukoa bazara larrialdietarako 112 telefonora deitu berehala (edo Foruzaingoaren 948-20-29-29 telefono zuzenera) patrulla bat agertuko da eta une hortan lapurren identifikazio lanak hasiko dira.

Iruñea, 2021-ko uztailak 4

Nota de prensa